

MEMORIA 2013 2013KO TXOSTENA

**Getxo
Bidezko Merkataritzako
kafearekin eta kakaorekin
esnatzen da**

Getxo
se despierta con café y cacao
de Comercio Justo



<http://ciudadjusta.org/>



AURKIBIDEA


I. GETXOKO UDALAREN LANKIDETZAREN IKUSPEGIA 2013. URTEAN	2
1.1. Helburuak.....	2
1.2. Datu orokorrak	3
II. LANKIDETZA-PROIEKTUAK	6
2.1. Diru-laguntzen urteroko deialdia	6
2.2. Erabilitako Liburuaren VIII. Azoka Solidarioa	11
2.3 Euskal Fondoarekin hitzarmena.....	12
2.3.1. 2013 Proiektua	12
2.3.2. InAurora.....	12
2.4. Garapenerako lankidetzaren proiektuen banaketa geografikoa	14
III. GARAPENERAKO SENTSIBILIZAZIO EDOTA HEZKUNTZAKO PROIEKTUAK.....	16
3.1. Diru-laguntzen deialdia.....	16
3.2. Egikaritze zuzena	18
3.2.1 Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2013	18
3.2.2. “Hijos de las nubes, la última colonia”	19
3.2.3. Hego Afrikako Giza Garapen Iraunkorra.....	19
3.2.4. Bidezko Merkataritza	20
3.2.4.1. Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien Hirugarren Topaketa	20
3.2.4.2. GetxoAktibatu, Romoko Bidezko Merkataritzaren jardunaldia	20
3.2.4.3. Getxolango Merkatarientzako Bidezko Merkataritzaren jardunaldia	20
3.2.4.4. Perualdeko Bidezko Merkataritzaren Denda Solidarioa	20
3.2.4.5. Getxo Bidezko Merkataritzaren kafearekin eta kakoarekin esnatzen da	21
3.2.4.6. Erosketa Publiko Arduratsua	21
3.2.4.7. Talde Traktorea	21
IV. HARRERA-PROIEKTUAK	22
4.1. Diru-laguntzen deialdia.....	23
4.2. Getxo Pro Sahara ATFALekin hitzarmena.....	24
4.3. Egikaritze zuzena	24
V. GIZA EKINTZA	26
5.1 Sahararen aldeko Euskal Karabana Solidarioa	26
5.2 Filipinetarako larrialdi-laguntza.....	26
VI. GETXOKO GGKE-AK SENDOTZEA	27
VII. BESTE ZENBAIT EKINTZA	28
7.1. Kontraparteak prestatzea.....	28
7.2. Egindako beste ekintza batzuk.....	28
VIII. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO LAN-TALDEA	30

I. GETXOKO UDALAREN LANKIDETZAREN IKUSPEGIA 2013. URTEAN

1.1. Helburuak

2012-2015eko Legealdia Planean jasota dagoenez, Garapenerako Lankidetzaren Arloaren helburu estrategikoa Getxoko Garapenerako Lankidetzako programa sendotu eta sustatzea da. Horretarako, ondorengo ekimenak garatzen dira:

- ✓ Udal-aurrekontuetako diru-sarreraren % 0,7 Garapenerako Lankidetzarako erabiltzea.
- ✓ Txirrotutako herrialde, giza ekintza eta garapenerako hezkuntzarako proiektuak diruz laguntzea.
- ✓ Bidezko Merkataritza eta Erosketa Etikoa sustatzea.
- ✓ Getxoko GGKEen sarea sendotzea.
- ✓ Lankidetzako Lan Taldeak koordinazio eta aholkularitzako lana sustatzea.
- ✓ Lankidetzaren berritzaileak diren politikak sustatzea, kultura-eskubideekin harreman zuzena dutenak.
- ✓ Euskal Fondoaren barnean parte hartzea, proiektuak finantzatuz eta Zuzendaritza Batzordean parte hartuz.
- ✓ Saharako Herriaren aldeko politikak sustatzea eta Oporrak Bakean programa garatzen jarraitzea.
- ✓ Proiektuak jarraitu eta ebaluatzeko lanak egitea.
- ✓ Herritarrei Lankidetzaren egindako lanaren berri ematea Getxotik Mundura Mundutik Getxora-ren bitartez.
- ✓ Garapenerako sentsibilizazio eta lankidetzako proiektuetan genero-ikuspegia sustatzen jarraitzea.
- ✓ Garapenerako lankidetzarako diru-laguntzak emateko orduan genero-ikuspegia irizpide modura aintzat hartzea.
- ✓ Sentsibilizazio-kanpainen bidez munduko emakumeen goeraren berri ematea.



1.2. Datu orokorrak

2013an, Lankidetz Arloak egikaritutako aurrekontua **496.579,70** euro izan da guztira, eta honako hauek burututako ekintza nagusiak:

- Proiektuei diru-laguntzak emateko urteko deialditik, **308.000** euro:
 - Lankidetzako 11 proiektu; guztira, 260.000 euro.
 - 3 sentsibilizazio-proiektu; guztira, 43.000 euro.
 - 5.000 euroko 4 harrera-proiektu.
 - **48.000 pertsonak** hobera egin dute osasunean, hezkuntzan, emakume eta garapenean, urari dagokionez, hezkuntzan eta nekazaritzan.
- **48.075,70** euro Euskal Fondoarekin egindako hitzarmenerako.
- **15.000** euro Oporrak Bakean Programarako.
- **15.000** euro Sahararen aldeko Karabana Solidariorako.
- **5.000** euro Filipinetako larrialdi-laguntzarako.
- **30.235,66** euro XVI. Getxotik Mundura Mundutik Getxora ekimenerako.
- Getxoko GGKEak sendotzeko diru-laguntzen deialditik, **12.000 euro**.
- **8.648,51** euro, sentsibilizazioko beste ekintza batzuetarako.

Nolanahi ere, Udaleko beste arlo batzuetan egindako lankidetzak ere kontuan hartu behar dira, eta, haiei esker, lankidetzarako baliabideak nabarmen handitzen dira.

Lankidetzari lagundu dioten Udaleko beste arlo, erakunde autonomoak honako hauek izan dira: Aukeren Berdintasun Arloa, Getxo Kirolak, Getxoko Kultur Etxea, Komunikazio eta Kontratazio Arloa.

Arlo horiei emandako baliabideak ez dira ekonomikoak bakarrik, baizik eta aurrez aipatutako Arloetako pertsonalak erabilitako denbora ere kontatu beharko zen.


Diru-laguntza, hitzarmen eta egikaritze zuzeneko deialdiaren bidez baliabideak ematea, lankidetzaren sektoreen arabera banatuta, honako hau da:

1. taula

Sektorea	Euroak
Hegoaldeko lankidetz-proiektuak	313.075,70 €
Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntzako proiektuak	81.686,16 €
Giza laguntza edo larrialdi-laguntza	20.000,00 €
Harrera	20.000,00 €
Getxoko GGKEak sendotzea	12.000,00 €
Guztira	446.761,86 €


Jarraian, 1. grafikoan sektorekako banaketa jasotzen da hark duen portzentajezko adierazpenean oinarrituz. 2013ko datuak aurreko urteetako antzekoak dira oso.

1. grafikoa




2. grafikoa, 2007tik 2013ra Lankidetzaren Arloko aurrekontu-bilakaera zehazten da. 2008 eta 2009 artean ikus daitekeenez, hurrengo 4 urteetan finkatuta izan den aurrekontuaren igoera nabarmena gertatu da; 2013an joera aldatu egiten da udal-arlo guztietan izandako aurrekontuak doitu direlako, batez ere diru-laguntzei eragin dietena.

2. grafikoa



3. grafikoa, Udalaren aurrekontu-portzentajearen bilakaera aurkezten da, Lankidetzako proiektuetarako erabili dena.

3. grafikoa



3. grafikoan adierazten denez, portzentajearen bilakaeran Lankidetzarako aurrekontuan argi ikus daiteke 2009an partida nabarmen igo zela eta 2012ra arte berdin jarraitu duela. Nolanahi ere, erabilitako aurrekontuaren portzentajea 2013an izandako jaisiera aztertzean, partida 2007 eta 2008 urteen gainera geratzen da, eta hori ez da erabilitako kopuru guztiarekin gertatzen; egoera hori udalaren diru-sarrerak murriztu direlako azaltzen da.

II. LANKIDETZA-PROIEKTUAK

Lankidetzaren proiektuak bi bide erabiliz ematen dira. Lehen, diru-laguntzen urteroko deialdiaren bidez egiten da. Bigarren bidea, xede horretarako lankidetzako eragileekin sinatutako hitzarmenak dira. Jarraian, 2013an finantzaturako proiektuak aurkezten dira, laburbilduta.

2.1. Diru-laguntzen urteroko deialdia

2013an, herrialde txiroetan lankidetzaren proiektuetarako 260.000 euro erabili zen 11 proiektu finantzaturik guztira, eta ondoren zehazten dira.

Proiektua	<i>Telema Osasun Mentaleko Zentroa</i>		
Herrialdea	Kongoko Errepublika Demokratikoa	GGKE	ECCA Romo
Laguntza	9.000,00 €	Guztira	20.025,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Telema Osasun Mentaleko Zentroan kokatzen da, Kongoko Errepublika Demokratikoan. Zentroak buru-nahaste larriak dituzten pertsonentzako osasun-arreta ematen du, prestakuntza haien familiei eta baita osasun-agentziei ere. Gainera, patologia larrienak dituzten pertsonentzako tailer bat du, eskulanak egin ahal ditzaten. Eguneko zentro baten antzera funtzionatzen du han bertan egindako janaria emanez. Emakumeen Harrera Zentro bat ere badu, eta haren xedea kalean utzitako gaixo mentalei laguntza ematea da. Gaixo mentala babesgabea da, animismoa nagusitzen baita eta, horregatik, egoera negatiboen errudunak dira. Gainera, zentroko pazienteak gerra-gatazka bat bizitako pertsonak dira, eta depresioak nahiz gaixotasun mentalak izaten dituzte. 2013rako, ondorengo emaitzak lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gaixo mentalei arreta, diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena egitea. 2. Familia eta osasun-eragileei prestakuntza ematea gaixotasun mentalak dituzten pertsonak hauteman eta haien jarraipena egiteko. 		



Proiektua	<i>Kapiri-sektorean eskolatzea, Kansanian.</i>		
Herrialdea	Kongoko Errepublika Demokratikoa		
GGKE	San Martín de Tours & Correo Misionero Misio Taldea		
Laguntza	32.000,00 €	Guztira	76.160,00 €
Laburpena	<p>Proiektua Katangako probintzian kokatzen da, Kapiriko udalerrian, Kanseniako eskualdean. Lubumbashi da Katangako hiriburua eta 1.700.000 biztanle ditu; Katangak 4 milioi pertsona ditu. Bizirauteko nekazaritza da jardura ekonomiko nagusia. Herrialdearen egoerak haurren eskolatzea bermatzea eragozten du. Estatuak ez du eskolen eraikuntzan inbertitzen, oihaneko gunean bereziki, eta irakasleek ez dute inolako soldatarik jasotzen. Proiektuak biztanleen bizi-kalitatea hobetuko du, eskola-adineko pertsonen eskolatzea erraztuz lehen-hezkuntzan, bigarrenetan eta unibertsitatean. 2013an, honako arlo hauetan jardutea aurreikusten da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskolatutako haurrei emandako arretari eustea. 2. Bi sexuetakoz gazteek unibertsitate eta lanbide heziketako ikasketak egiteko aukera izatea. Eskola-adineko 2.200 neska/mutil dira onuradunak. 		



Proiektua	<i>Txirotutako landa-komunitateek edateko ura izateko aukera</i>		
Herrialdea	Bolivia	GGKE	Zabalketa
Laguntza	28.300,00 €	Guztira	51.315,00 €
Laburpena	<p>Esku-hartzea Alto del Veladorako komunitatean egiten da, Cruceño ibarretan dagoena, eta 80.299 biztanle bizi da bertan. Alto del Veladeroko komunitatean 330 biztanle bizi dira gaur egun, % 53,6 gizonezkoak eta % 46,4 emakumezkoak. Esku hartzeko gunean klima-egoerak gero eta txarragoak dira eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako jarduera desegokiak biztanleentzako ur-horniketa arriskuan jartzen ari dira, kantitate, jarraipen eta kalitateari dagokionez.</p> <p>Proiektuak Alto del Veladeroko komunitatean uraren kudeaketa hobea izan dadin, zeregin horretan lagundu nahi du, biztanleen kontsumo-beharrak asebeteko dituen kopuruari nahiz kalitateari dagokionez. Horretarako, ura hornitzen duen herri-antolaketako gaitasun nahiz tresnak sendotzea sustatu nahi da; hala, dagoen ura era eraginkorrean erabiltzea sustatuko da, aukerako mekanismo bat inplementatuko da ura hornitzeko laino-harrapatzaileak diren sareekin atmosferako ura bilduz eta biztanleen artean natur isurialdeen zaintza zabalduz.</p>		

Proiektua	<i>Emakumeen jabekuntza eta autonomiarako Maia aukera tradizionalak berreskuratuz Kaqchikel emakume nahiz gizonen Bizitza Onerako</i>		
Herrialdea	Guatemala	GGKE	Entreamigos – Lagun Artean
Laguntza	28.100,00 €	Guztira	41.586,78 €
Laburpena		<p>Esku-hartzea Sololá-ko udalerrian egiten da (Guatemala).</p> <p>Proiektuak Oxaluj elkartearen toki-garapen iraunkorreko prozesuak hobetzen lagundu nahi du Bizi Onaren jarduerak sustatuz eta, hala, Maia Kaqchikel emakume nahiz gizonen arteko desberdintasun- eta botere-harremanen eraldaketan eragina izanez. Horretarako, hiru ekintza-lerro nagusi erabiliko dira elikagaien subiranotasun, genero eta maia kosmikuspegiaren ikuspuntuetatik; haiek oinarrituta daude, Oxaluj-ekoak diren komunitateko liderren gaitasunak sendotzen eta baita gizartean duten parte hartzean ere. Lortu ahal izateko, proiektuak ondorengo emaitzak lortu nahi ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 90 emakume Maia eta Kaqchikel-en eragin nahiz antolaketako ahalmen tekniko, ekonomikoa sendotzea; haiek Oxaluj-eko Zuzendaritza Batzordekoak dira. 2. Maia Kaqchikel emakumeen parte hartze sozio-ekonomikorako eta antolaketarako baldintzak hobetzea biztanleria sentsibilizatuz, eta gizonengan ahalegin berezia eginez. 3. Eskualdeko elikagai osasungarrien aukera nahiz aprobetxamendua handitzea elikagaien subiranotasun-irizpideetan oinarrituz. 	

Proiektua	<i>Concepción Chiquirichpa, Quetzaltenango-ko bi komunitate indigenetako osasuneko ingurumen-baldintzak hobetzea</i>		
Herrialdea	Guatemala	GGKE	Medicus Mundi Bizkaia
Laguntza	28.300,00 €	Guztira	36.263,17 €
Laburpena	<p>Proiektu honen helburua da, Concepción Chiquirichapa (Quetzaltenango) udalerriko bi komunitateren osasun nahiz ingurumeneko baldintzak modu integralean hobetzea. Horretarako, funtsezko lau estrategia azpimarratu nahi ditu.</p> <p>Lehen estrategiak etxeetako bizigarritasun eta higieneko baldintzak hobetzea bilatzen du, ur grisek hartutako kutsadura-fokuak kenduz.</p> <p>Bigarrena osasunerako kaltegarriak diren agrokimikoen erabilera murriztean oinarritzen da, lurzorua zaintzeko beste zenbait jardura inplementatuz. Hirugarrenak ingurumen eta osasunari buruzko sentsibilizazio komunitarioko estrategia bat egin nahi du, emakumeekin duen harremana azpimarratuz bereziki eta eskubideen ikuspegi batetik. Azkenik, proiektuak komunitateko lidergoaren antolaketa-gaitasun eta gaitasun teknikoak sendotzea proposatzen du toki-mailako ingurumen- eta osasun-arazoa behar bezala jorratzeko.</p>		




Proiektua	<i>Anantapur-ko nekazaritzako 20 familiaren egoera sozio-ekonomikoa hobetzea</i>		
Herrialdea	India	GGKE	Vicente Ferrer fundazioa
Laguntza	19.500,00 €	Guztira	33.216,96 €
Laburpena		<p>Proiektua Kadiri Eremuko komunitateetan egiten da, Anantapur-ko barrutian, Indiako Andhra Pradesh estatuari dagokiona. Anantapur-ko barrutia Indiako lehorrenetarikoa da eta klima-egoera txarra du urtean euri gutxi egiten baitu; beraz, lehorreak gero eta sarriago dituzte eta uraren erabilera ez da eraginkorra. Egoera horrek desertifikazioak aurrera egitea dakar han izaten diren tenperatura altuak direla-eta. Inguru hartako ekonomia abeltzaintzan eta nekazaritzan oinarritzen da, biak ala biak bizirautekoak dira, eta hari oso hierarkizatutako kasta-sistema gehitzen zaio; azken horrek nekazaritzakoa ez den beste edozein bizibide mugatzen du. Anantapur-en biztanleen % 80 nekazaritzatik bizi da, gehienak jornalariak. Nekazaritza produktiboago bat garatzeko aukera uraren baliabideak mugatzen du. Urteko zati handienetan ez dago azaleko urik eta akuiferoak ez dira berriz betetzen. Horren ondorioz, biztanleek ez dute baliabide egonkorrik urtean zehar. Gaur arte inguruko ureztatze-sistema uholde bidezkoa zen, berez ur-galera handi samarrak dakartzan sistema (% 25eraino galdu ohi da lurrunketagatik), ihesengatik, horniketa-galerengatik... sortutako ur-galerez gain.</p> <p>Esku-hartzearen helburua nekazaritzaren eraginkortasuna eta produktibitatea hobetzea da ureztatze teknika eraginkorrak sartuz. Horretarako, esperotako emaitzak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. 20 familiak gaitasuna dute tantakako ureztatze-sistemen instalazioan eta mantentze-lan egokian. 2. 20 familien 15,84 lur-hektareatan ureztatze-sistema eraginkorrak jarri dira. 	

Proiektua	<i>Mantako Auzo Marjinaletako bizi-baldintzak hobetuz</i>		
Herrialdea	Ekuador	GGKE	Laguntza GEHIAGO
Laguntza	28.300,00 €	Guztira	41.408,64 €
Laburpena	<p>Mantako hiriko 9 auzo marjinaletako bizilagunek zer osasun eta ingurumen-arazo larriak dituzten ikusita, proiektuak bertako bizi-baldintzak hobetzea bilatzen du.</p> <p>Osasun-arretako eredia asistentzialista da eta kostu handiak ditu. Estatuko ospitale eta osasun-zentroek akats handiak dituzte arreta, azpiegitura, ekipamendu eta sendagaietan. Osasun eta prebentzioaren sustapenean oinarritutako ikuspegiak ez dago.</p> <p>Osasun Sustatzaileen Sareen bidez eta auzoko erakunde nahiz tokiko erakundeekin koordinatuta, biztanle ahulenak prestatuko dira osasun eta nutrizio egokia izan dezaten eta ingurumen nahiz osasuneko baldintza osasungarriak izan ditzaten. Gainera, udal-politikak azpimarratuko dira osasuneko eta ingurumen-saneamenduko oinarritzko zerbitzuak hobete daitez.</p> <p>Ondorengo emaitzak lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Biztanle ahulenek gaixotasun, eskubide nahiz genero-zuzentasunean gaitasunak dituzte, eta osasuna hobetzeko bizi osasungarriko estiloak. 2. Mantako 9 auzo marjinaletako erakundeek beren eskubideen eskakizunean azpimarra egiten dute eta udal-politikan parte hartzen dute osasuneko oinarritzko zerbitzuak nahiz ingurumen-saneamendua hobetzeko. <p>Proiektuaren onuradun zuzenak 712 gizon eta 1.203 emakume dira, eta haiek guztiak honako talde hauen barnean daude: osasun-sustatzaileak, auzoetako agintariak, 3 urte baino txikiagoak, haurdun daudenak, arriskuan dauden familiak, beste emakume-talde batzuk eta beste osasun-sustatzaile batzuk.</p>		



Proiektua	<i>Irupana-ko udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen ekologikoa eta emakumearen jabekuntza</i>		
Herrialdea	Bolivia	GGKE	Mugarik Gabeko Hezkuntza
Laguntza	28.300,00 €	Guztira	36.303,62 €
Laburpena	 <p>Proiektua Irupanako udalerrian egiten da, La Paz-etik 51 km-ra, Irupa bigarren sekzioan, Sud Yungas-eko probintziako barnean. Inguru horretan hiru hizkuntza hitz egiten dira: aymara, kitxua eta gaztelania.</p> <p>Esku-hartze honen helburua da, udalerriko landa-komunitateetan nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena eta emakumearen jabekuntza sustatzea, jakinduria zaharrak, ezagutza eta teknologia egokiak berreskuratuz. Horretarako, esperotako emaitzak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Familiek genero-zuzentasuneko parte hartzeko prozesuak garatzen dituzte beren komunitateetako erabakiak hartzeko orduan eta antolatzeko egiturari. 2. 50 familiek nekazaritza eta abeltzaintzako ekimen produktibo ekologikoak garatu dituzte, tokiko produktuen laborantza indartuz. 3. CETHA (Nekazaritza eta Abeltzaintzako Hezkuntza Tekniko Humanistikoko Zentroa) Irupana-ko Ekoizpen eta Antolaketako Komunitate Hezkuntzako proposamena du testuinguruari dagokion genero-ikuspegiarekin. <p>50 familia dira esku-hartzearen onuradunak eta, haietatik, 50 emakumek gutxienez proiektuan era aktiboan parte hartzea espero da.</p>		

Proiektua	<i>Comune de Djedougu-ko Fiengala-Beleko landa-komunitateko emakumeen elkarteko antolaketa eta ekoizpen-gaitasunak sendotzea</i>		
Herrialdea	Mali	GGKE	Osalde
Laguntza	28.300,00 €	Guztira	42.439,25 €
Laburpena	<p>Esku-hartzea Fiengala Beleko komunitatean (Comune de Dejedougou) egiten da, Maliko Koulikoroko eskualdean. Mali munduko herrialde txiroenetako bat da; PNUDen arabera, 187 herrialdeetatik 175. postuan dago. Egoera hori Sahel-go goseteak are gehiago okertzen du. Dejedougou nekazaritza eta abeltzaintzako komuna bat da. Kolonizazio-garaitik kotoia Maliko Societé Nacional des Textiles erakundeak kudeatutako labore bakarra izan da. Merkatuaren liberalizazioak eta prezioen jaitsierak hura kolapsatzea ekarri du eta pribatizatzeko bidean dago. Konpainiak emandako gizarte-zerbitzuak atzera egiten ari dira ez dutelako mantentze-lanik. Nekazaritza da diru-iturri nagusia nahiz eta haren laborantza urtaroei lotuta dagoen. Abeltzaintza garrantzitsua da bizirauteko egitura ekonomikoan. Testuinguru honetan emakumeen lana bigarren mailan geratzen da Bambara gizartean. Chef de villages delakoak gizonezkoak dira beti; egoera patriarkal horretan emakumeek komunitatean erabakitzeak karguak betetzea pentsaezina da. Emakumea gizonaren borondatearen mende dago, poligamia praktikatzeko duen gizartea da. Klitoriaren eszisia errotutako ohitura da, emakumeen % 85i egiten zaio. Testuinguru honetan emakumeak beren familiak bizirauteaz arduratzen dira. Esku-hartzearen helburua komunitateko emakumeen elkarteko antolaketa sustatzea eta ekoizpen-baldintzak hobetzea da. Horretarako, ondorengo emaitzak lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Emakumeen elkarteko zuzendaritza-batzordea sendotzea. 2. Fiengala Beleko-ko emakumeen elkarteko ekoizpen-gaitasunak hobetzea. 		
			
Proiektua	<i>Komunitateko osasun-arreta eta ugalketako sexu-osasunaren sentsibilizazioa hobetzea Leongo Larreynaga udalerrian, genero- eta belaunaldi-ikuspegi batetik.</i>		
Herrialdea	Nikaragua	GGKE	Mugarik Gabe
Laguntza	10.500,00 €	Guztira	13.730,77 €
Laburpena	<p>Proiektuak komunitateko osasuna hobetzea du xede komunitateko 34 osasun-sustatzaile sendotuz eta osasuneko eragileak sustatuz eta haiei laguntza emanez, osasun-batzorde baten osaera garatzeko eta daudenak indartzeko. Bestalde, sexu eta ugalketako osasun-arloak sexu eta ugalketako osasunari buruzko sentsibilizazio-kanpaina bat sustatu nahi du; bertan minbizi zerbiko-uterinoa prebenitzeko prebentzioa eta diagnostikoaren garrantzia sartzen da, sexu-transmisioko infekzioen prebentzioa (ITS, GIN-HIES) eta nerabeen eta gazteen haurdunaldia Larreynagako udalerrian.</p> <p>Horretarako, ondorengo emaitzak lortu nahi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Osasun Batzordeen lana sendotzea, kalitatea hobetuz eta baita artatutako pertsona-kopurua ere. 2. ITS, minbizi uterinoa, nerabe eta gazteen haurdunaldia prebenitzeko sentsibilizatutako komunitateko eragileak. 3. ITS, minbizi uterinoa, nerabe eta gazteen haurdunaldia prebenitzeak zer garrantzi duen biztanleei jakinaraztea. <p>34 osasun-sustatzaile osatuko dira gutxienez, eta giza papilomaren birusa duten 190 emakume detektatuko.</p>		
			

Proiektua	<i>Rubare-n garatu beharreko epilepsiaren aurkako borroka, eta baita hark utzitako ondorio sozial, familiarren aurkakoa ere.</i>		
Herrialdea	Kongoko ED	GGKE	Perualde & ICLI
Laguntza	19.400,00 €	Guztira	24.830,00 €
Laburpena	 <p>Ruandako gerra-egoerak eta segurtasun falta larriak sortutako trauma-estresak, epilepsia-episodioak sustatzen ari da, talde ahulenean, haurtzaroan, eragin handia izanik; haurrek, gainera, eranskin modura, gizartearen aurreiritzia eta gaitzespena jasotzen dute. Proiektu honen helburua pertsona horiei beren gaixotasunerako osasun-tratamendu egokia ematea da; horrekin batera, beren familietan eta ingurunean, oro har, informazio, prestakuntza eta sentsibilizazioko lan garrantzitsua egitea. Horretarako, esperotako emaitzak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Epilepsia jotako gaixoen osasun-arreta eta -tratamendua hobetzea, bitartekotza egokia eta laguntza psikologikoa izateko aukera emanez. 2. Kaltetutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta hilkortasun-indizeak murriztea. 3. Gaixoei eta haien familiei gaixotasunari aurre egiteko eta beren eskubideak egikaritzeko baliabideak ematea, biltzeko, informazioa partekatzeke, kezkak trukatzeko eta ekintza bateratuei ekiteko espazioak emanez. 4. Ingurunea sentsibilizatzea aurreiritzietan eta ideia okerrean aurre egiteko eta epilepsiaren diskriminazioaren aurka borrokatzeke. <p>200 pertsona izango dira onuradun zuzenak: 50 gizon, 100 emakume, 30 mutil eta 20 neska.</p>		

2.2. Erabilitako Liburuaren VIII. Azoka Solidarioa

"Erabilitako Liburuaren VII. Azoka Solidarioa" ekainaren 19tik 23ra egin zen. Egun horietan 17.000 liburu inguru saldu ziren, eta 8.000 bat pertsona bertaratu ziren guztira. Gai askotariko argitalpenak partikularrek liburutegietara egindako dohaintzak ziren, eta liburuak euro bateko prezio sinbolikoan jarri ziren salgai.

Proiektua	<i>Kapiri-sektorean eskolatzea, Kansanian</i>		
Herrialdea	Kongoko ED	GGKE	San Martín de Tours Misio Taldea
Bildutakoa	14.525,00 €		
Laburpena	<p>Proiektua Katangako probintzian kokatzen da, Kapiriko udalerrian, Kanseniako eskualdean. Lubumbashi da Katangako hiriburua eta 1.700.000 biztanle ditu; Katangak 4 milioi pertsona ditu. Bizirauteko nekazaritza da jarduera ekonomiko nagusia. Herrialdearen egoerak haurren eskolatzea bermatzea eragozten du. Estatuak ez du eskolen eraikuntzan inbertitzen, oihaneko gunean bereziki, eta irakasleek ez dute inolako soldatarik jasotzen. Proiektuak biztanleen bizi-kalitatea hobetuko du, eskola-adineko pertsonen eskolatzea erraztuz lehen-hezkuntzan, bigarrean eta unibertsitatean. 2013an, honako arlo hauetan jardutea aurreikusten da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 3. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskolatutako haurrei emandako arretari eustea. 4. Bi sexuetakoz gazteek unibertsitate eta lanbide heziketako ikasketak egiteko aukera izatea. Eskola-adineko 2.200 neska/mutil dira onuradunak. 		
			

2.3 Euskal Fondoarekin hitzarmena

Euskal Fondoa (Kooperatzaileen Euskal Toki Entitateen Elkarte) 1995ean sortu zen eta gaur egun 111 toki-erakunde batzen ditu; erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 80 ordezkatzen dute, eta alderdi politiko guztietako ordezkariak parte hartzen dute bertan.

Euskal Fondoaren helburuak honako hauek dira:

- Garapenerako lankidetzaren sustatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea.
- Nazioarteko lankidetzaren arloko koordinazio instituzionala.

Getxoko udalbatzak, 2001eko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, Euskal Fondoari atxikitzea onartu zuen. Getxok dagokion kuotarekin parte hartzen du bertako bizilagun-kopuruaren arabera, eta lankidetzako udal-aurrekontuen % 10 proiektuak kofinantzatzeko erabiltzen du.

2011ko urriaren 22an Getxon egindako Ohiko Batzarrean, Euskal Fondoak zuzendaritza-batzordea berriitu zuen, eta Getxoko alkate Imanol Landa Jauregi hautatu zuten lehendakari.

2.3.1. 2013 Proiektua

Proiektua	<i>Euri-ureen drainatzea eta saneamendua hiri-sektorean eraikitzea, Tipitapa udalerriko Juan Castro eta Aleyda Delgado kaleak II. fasea</i>		
Herraldea	Nikaragua	Entitatea	Euskal Fondoa
Diru-laguntza	42.457,00 €	Guztira	134.408,60 €
Laburpena	<p>Udalerria: Tipitapa. Managuako Departamentua.</p> <p>Tipitapako hiria hiriburutik, Managuatik 22 km-ra dago. 721.50 hektarea ditu, San Rafael eta Ciudadela hiri inguruko herriak barne.</p> <p>Tipitapa udalerrian 134.880 biztanle daude, eta haietatik % 38,1 landa-eremuan biltzen da eta % 61,9 hirialdean. Bertako biztanleen % 49,6 emakumezkoa da eta % 50,4 gizonezkoa, hau da, emakume bakoitzeko 1.01 dira gizonezkoak.</p> <p>Helburuak: Haurrengan eta sektore ahulenetan beherako eta arnasketako gaixotasunen kopuru handia murriztea / euri-urek eragindako kalteak prebenitzea / bideko azpiegitura eta irisgarritasuna sendotzea.</p> <p>Laburpena: Urte anitzeko proiektu baten lehen fasea eta bertan euri-urak drainatzeko 860.09 ml eraikiko zen</p> <p>Juan Castro eta Aleyda Delgado auzoetan, euri-urek hiriguneko 6 auzotan eragiten dituzten kalteak murrizteko asmoz.</p> <p>Biztanle onuradunak: 2.469 pertsona (% 55 emakumeak eta % 45 gizonak)</p>		

2.3.2. InAurora

InAurora Euskal Fondoaren proiektu bat da eta haren helburua herritarrak inplikatzeko eta genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzak egitea da.

Askatasun-istorioak kontatu nahi eta herritarren salaketako ekimenak sustatu euskal erakundeekin eta toki-entitateekin bitartez, bai eta elkarteekin lan egiten duen leku guztietatik ere.

InAurora plataforma (www.inaurora.org) salaketa eta hausnarketa aktiborako tresna moduan sortzen da Guatemalako emakume indigena baten istoriotik abiatuz, Aurora izeneko emakumetik, hain zuzen.

InAurora sortzen da Euskal Fondoak INCIDE toki-erakundearekin lan egiten duen proiektuetariko baten barnean: “Ahalmen instituzionalak sendotzea emakume nahiz gizonen berdintasun-ikuspegia

Alta Verapaz-ko udal-kudeaketan sartzeko”, Guatemalan garatutakoa. Haren esparruan, Aurora izeneko dokumentala egin zen, eta bertan Alta Verapaz-ko Departamentuko emakumeek jasaten dituzten bidegabekeriak erakusten dira. Aurorak landa-komunitateetan egiten du lan, txotxongiloen proiektu batean. Gazte-talde batekin batera, eta txotxongiloak erabiliz, osatu duen taldeak emakumeek pairatutako desberdintasunen berri ematen du pertsona eta, batez ere, emakume moduan dituzten eskubideei buruzko hausnarketa sortzeko.

Dokumentalaren grabaketa amaitzean, Aurorak bere bizipena kontatzen duen txotxongiloa ematea erabaki zuen. Hark bere lana egiten jarraitu du Euskadin; izan ere, genero-desberdintasunen aurkako borroka orokorra da, eta, hemen, beste esperientzia batzuen eskutik ere ikastea, entzutea, kontatzea, pentsatzea eta jardutea behar dugu. Auroraren keinu solidarioak ulertarazten lagundu zigun zerbait da.



Getxotik lankidetzaren sakon bat piztu da; lehenik eta behin, ekimena Lankidetzaren Taldeak babestu du eta, horretarako, grabaketa bat egin zen Auroraren txotxongiloarekin. Bigarrenik, Carmen Amurriok San Martin de Tours Misio taldeak Kongoko EDan bizitako esperientzia kontatu zuen eta Kepa Miñambrek (Lankidetzaren zinegotzia) Getxoko Udalaren lankidetzaren politika (<http://vimeo.com/78189947>).

Hirugarrenik, Julieta Paredesi elkarrizketa bat egin zitzaion (aymara komunitateko feminista), eta bertan bere esperientziei buruzko hausnarketa egiten zuen (<http://vimeo.com/78247563>).


Bestalde, InAurora plataformak egindako ekintzen artean beste bi nabarmendu behar dira. Lehen, Aurorari buruzko dokumentala egitea (<http://vimeo.com/66890460>), eta Italiako Triesteko Jaialdian Generoko Kulturaren Saria irabazi zuen.

Bigarren ekintza aipagarria Aurorari buruzko abesti bat egitea izan da, Katia Cardenal Nikaraguako bakarlari ezagunak egindakoa (<http://www.youtube.com/watch?v=vWIdLD71u9Q>)

2.4. Garapenerako lankidetzaren proiektuen banaketa geografikoa

Jarraian, 4. grafikoan, eremu geografikoaren arabera 2013an finantzaturako proiektuen banaketa aurkezten da.¹


4. grafikoa



Ikus daitekeenez, 2013ko proiektu gehienak Erdialdeko Amerikan garatzen dira batez ere; ondoren, bigarren postuan, Hego Amerikan egindako proiektuak daude, azken urteotako joerara itzuliz, 2012an eten zena; urte horretan bigarren postuan Afrika ageri zen (orain hirugarrena da). Laugarren postuan Asiako inguru geografikoa azaltzen da, diruz lagundutako proiektu bakarria baitu.

Jarraian, 5. grafikoan portzentajezko adierazpidea aurkezten da egindako esku-hartzeen eremu geografikoaren arabera.

5. grafikoa



Portzentajearen banaketan (5. grafikoan adierazitakoa), Erdialdeko Amerikan metatzen da Getxoko Udaleko laguntzaren % 38, eta Hego Amerika dator ondoren (% 33).

¹ Garapenerako Lankidetzaren Arloko aurrekontu-partidaren zenbatekoak bakarrik sartzen dira eta, beraz, Erabilitako Liburuaren Azokan bildutako dirua ez da datuetan adierazten.

Aurreko urtearekin alderatuz, Hego Amerika % 29tik % 33ra igo da, bigarren postuan kokatuz Afrikaren aurretik; Afrika % 30etik egungo % 24ra pasa da.

Zehaztasun handiagoz, Erdialdeko Amerikan, Nikaragua eta Guatemala dira baliabide-kopuru handiena metatzen duten herrialdeak, bietan 55.000 euro gaindituz.

Afrikan, Kongoko Errepublika Demokratikoa da baliabide gehien dituen herrialdea, 60.000 euro; izan ere, 2013an, herrialde horretako 3 proiektu finantzatu ziren.


Azkenik, Asian, proiektu bat abiarazita dago Indian, Vicente Ferrer fundazioaren eskutik.


III. GARAPENERAKO SENTSIBILIZAZIO EDOTA HEZKUNTZAKO PROIEKTUAK

Diru-laguntzen deialdiek sentsibilizazio-proiektuak zehazten dituzte, eta egikaritze zuzena XVI. Getxotik Mundura Mundutik Getxora izeneko ekimenaren bitartez.

3.1. Diru-laguntzen deialdia

2013an, hiru proiektu finantzatu dira diru-laguntzen urteroko deialdiaren bidez. Zehazki, finantzatutako proposamenak honako hauek izan dira:

Proiektua	Zabaldu Mundura Ikasteko, III. fasea		
Udalerrria	Getxo	GGKE	Zabalketa
Laguntza	17.000,00 €	Guztira	25.808.00 €
Laburpena	Ikasteko proiektuak GE (Garapenerako Hezkuntza) hezkuntza formalaren curriculumean sartzea du xede, 2 ikasgaitan: “Hezkuntza etikoa eta gizalegezkoa” DBHko 4. mailan eta “Filosofia eta Herritarrak” Batxilergoko 1. mailan. Helburu horretarako, alde batetik hezkuntzako materiala 4 bideorekin aberastuko da, eta baita material osagarriarekin ere; bestetik, ikastetxetan mintegiak antolatuko dira Garapenerako Lankidetzako gaiei buruz sakondu eta hausnartzeko asmoz. Unitate didaktikoak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eginda daude. Ekimen honetan 7 ikastetxek parte hartzen dute.		

Proiektua	Bidezko Merkataritzaren aldeko sarean lan eginez		
Udalerrria	Getxo	GGKE	Emaus Gizarte Fundazioa
Laguntza	16.400,00 €	Guztira	17.411,52 €
Laburpena	Proiektuak Getxoko Bidezko Merkataritza sustatzea bilatzen du, Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriak programaren bidez lan eginez Getxoko merkatariekin, hezkuntza-komunitatearekin eta elkarteekin.		
	 ciudad por el comercio justo	Alde horretatik, kontuan hartu behar da Getxo Bidezko Merkataritzaren Hiria dela 2012. urtetik, EAEko lehena izanik Bilborekin batera. Horretarako, ondorengo emaitzak lortu nahi dira: <ol style="list-style-type: none"> 1. Talde-traktorearen ekintzak finkatzea Getxon. 2. Bidezko Merkataritzako salmentak sendotzea Getxon. 3. Bidezko Merkataritzak Getxoko hezkuntza-komunitatearen konpromisoa sustatzea. 	

Proiektua	Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina		
Udalerrria	Getxo	GGKE	Mugarik Gabeko Hezkuntza
Laguntza	9.600,00 €	Guztira	15.783,11 €
Laburpena	<p>Proiektu honetan Getxoko biztanleak sensibilizatu nahi dira, ikastetxeak bereziki, pertsona guztien hezkuntza-eskubideen alde borrokatzeko beharraz eta, bereziki, txirotutako herrialdeetan bizi direnen beharraz.</p> <p>Proiektutik esperotako emaitzak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Beharrezko zabaltze-baliabideak lantzea Munduko Hezkuntza Kanpaina eta Hegoaldeko herrialdeetako hezkuntzaren egoera ezagutzera emateko. 2. Beharrezko hezkuntza-baliabideak egin, itzuli, inprimatu eta zabaltzea. 3. Munduko Ekintza Astearen mobilizazio-ekintza bat egitea ikastetxetan presentzia izanik eta ordezkari politikoarekin. 4. Euskadiko hedabideek Hegoaldeko herrialdeei buruzko behar beste informazio eta testigantza dituzte Munduko Hezkuntza Kanpainako proposamenak zabaltzeko. 		



3.2. Egikaritze zuzena


3.2.1 Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2013

Abenduaren 6tik 10era XVI. Getxotik Mundura Mundutik Getxora Lankidetzaren Topaketak antolatu ziren. Edizio horren ardatz nagusia Getxo Bidezko Merkataritzaren Hiri aitortu izana izan zen eta, beraz, Bidezko Merkataritzaren inguruko ekintzak bihurtu ziren ekintza nagusiak. Igandeko GGKEen Azokan egindako ekintzez gain, topaketetan erakusketa bat eta zine-forumeko bi saio izan ziren.

Proiektua	Getxotik Mundura Mundutik Getxora 2013. XVI. Topaketak		
Udalerrria	Getxo	Laguntzaileak	Getxoko Kultur Etxea eta BBK.
Zenbatekoa	30.235,66 €		
Laburpena	<p>Helburua Getxoko udalerrian gai sozialeko jai-espazio bat sortzea da. Bertan lankidetzan lan egiten duten tokiko erakundeek parte hartuko zuten, haurrei bereziki bideratutako ekintzekin, eta haiek herritarrei ikuspegi hurbilago bat emango diete garapenerako lankidetzaren proiektuetarako bidalitako funtsen xedearen gainean. Elkartasunaren inguruko ekintzak garatuko diren espazioak sortzen jarraituz gain, ikuspegi zehatz batean lan egin nahi da, generoen arteko zuzentasunean eta garapenerako lankidetzan eragina izango duena. Helburu nagusiak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Udalerrian laguntza ematen duten GGKEak Getxoko herritarrengana hurbiltzea, espazio ludiko baten barnean. - Saharako herria zer egoeratan dagoen herritarrei jakinaraztea. <p>2013ko edizioak honako berrikuntza nagusi hauek izan ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Abenduaren 6tik 8rako zubian Getxoko 32 taberna eta jatetxe bidezko merkataritzako kafea eta kakaoa banatu zuten; hala, herritarrek produktu horiek ezagutzeko eta dastatzeko aukera izan zuten. ✓ Abenduaren 8an GGKEen Azoka egin zen; <p>hainbat tailer antolatuz gain, Saharako ahotsa den Marien Hassan-en emanaldiarekin gozatu ahal izan zen.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Abenduaren 9an udal-jardunaldi tekniko bat egin zen Euskal Fondoaren eskutik, eta bertan garapenerako toki-estrategietarako Europako itunak aztertu ziren. ✓ Abenduaren 12an, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela baliatuz, “La Semilla de la Verdad” (“Egiaren Hazia”) izeneko dokumentala aurkeztu zen Getxon, Eztizen Miranda-k (EHU eta Aranzadi) editatutako dokumentala. Lan horretan, alde batetik, desagertutako sahararren familien testigantzak bertatik bertara entzun daitezke, eta bestetik, exekuzioen lekuko presentzialaren testigantza. ✓ Abenduaren 13an, “Inch Allah” filma proiektatu zen. Pelikula horretan Palestinaren egoera jasotzen da, eta ondorengo eztabaidan Biladi-ren dinamizazioa izan zen. 		



3.2.2. "Hijos de las nubes, la última colonia"

Proiektua	"Hijos de las Nubes" zine-foruma		
Udalerrria	Getxo	Laguntzaileak	Kultur Etxea
Zenbatekoa	538,45 €		
Laburpena	<p>Maiatzaren 3an 132 lagunek parte hartu zuten kultur etxearekin batera antolatutako zine-forumen; Javier Bardemek ekoiztako eta Alvaro Longoriak zuzendutako dokumental honetan Mendebaldeko Saharako egoeraren berri ematen da. "Hijos de las Nubes" ("Hodeietako seme-alabak") filmak dokumental onenaren saria eskuratu zuen Goya sarietan, 2013. urtean.</p> <p>Dokumentalaren ondorengo eztabaida Getxo Pro Sahara ATFAL elkarteak dinamizatu zuen.</p>		

3.2.3. Hego Afrikako Giza Garapen Iraunkorra

Proiektua	Hego Afrikako Giza Garapen Iraunkorra – Roelf Meyer		
Udalerrria	Getxo	Laguntzailea	Agirre Lehendakaria Center for Social and Political Studies
Zenbatekoa	1.234,20 €		
Laburpena		<p>Urriaren 28an Hego Afrikako Giza Garapen Iraunkorrari buruzko mintegia egin zen Getxoko Elkartegian, eta Roelf Meyer izan zen bertan. Roelf Meyer, apartheid-aren amaiera ekarri zuten elkarrizketetako negoziatzaile nagusietako bat izan zen. Nelson Mandelaren gobernuan parte hartu zuen eta politika, aktiboki, 2000. urtean utzi zuen. Gaur egun, bere esperientzia gatazka politikoak kudeatzeko baliatzen du nazioarteko erakundeetan parte hartuz, esate baterako: Harvard-ko Unibertsitatean edo Ulster-en, eta nazioarteko hainbat gatazken aholkularia da (Ekialde Ertaina, Ruanda, Kosovo...).</p>	

3.2.4. Bidezko Merkataritza

2012ko azaroan Getxok Bidezko Merkataritzaren Hiriaren ziurtagiria jaso zuen, Euskadiko lehena izanik, Bilborekin batera. Bidezko Merkataritzaren Hiria izateak hiri-eredu bat aitortzea esan nahi du, eta bertan hainbat eragilek (gizarte-entitateak, sektore publikoa eta pribatua) bere egiten dituzte Bidezko Merkataritzaren printzipioak eta, gainera, zenbait ekimen burutzen dituzten sustatu ahal izateko.

2013an esku-hartze aipagarrienak ondoren aipatzen direnak dira:

3.2.4.1. Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien Hirugarren Topaketa

2013ko ekainean Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien Hirugarren Topaketa egin zen Bilboko Alhondigan. Topaketan Belgikako Fair Trade Towns ekimeneko kideek eta Leon, Madril, Kordoba eta Bilboko udaletako ordezkariak parte hartu zuten, besteak beste.

Getxoko Udalaren kasuan Tokiko Lan Taldeei buruzko jardunbide egokia aurkeztu zen; horrenbestez, Getxon egindako lana aitortuz.

3.2.4.2. GetxoAktibatu, Romoko Bidezko Merkataritzaren jardunaldia

Irailaren 14an Bidezko Merkataritzari buruzko jardunaldia egin zen. Jarduera GetxoAktibatu-k sustatutako ekintzen barnean sartu zen (udalerriko gizarte- eta merkataritza-bizitza bultzatzen duten ekintzak egitea bultzatzen du eta, aldi berean, haiek antolatzeko sektoreen arteko lankidetzak); izan ere, Romoko Gobelondo kaleko inguruko taberne egindako proposamen batean sortu zen (Arotza, Trokazulo, La Mona eta Tudelilla Bodega).

Jardunaldia jai-giroan egin eta bizilagunak Bidezko Merkataritzara hurbiltzeko aukera ona izan zen.

Parte-hartzaileen artean izan ziren: Mercadeco, Perualde, Mugarik Gabeko Hezkuntza, Schams, Emaus Gizarte Fundazioa, Gazteen Gurutze Gorria eta Ahotsa duten Emakumeak.

3.2.4.3. Getxolango Merkatarientzako Bidezko Merkataritzaren jardunaldia

Urriaren 16an eta Getxolanean lankidetzan (Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuak, enplegua sustatzea, enpresak sortzea eta udalerriko ekonomia sustatzea ditu xede), Bidezko Merkataritzako jardunaldi bat antolatu zen merkatarientzat.

Jardunaldiaren helburua Bidezko Merkataritzaren jatorria, eragileak, joerak eta jokabidea azaltzea izan zen; horrez gain, kasu praktiko bat aztertzea (kafea), hura saltzeko estrategiak, banaketa, merkaturatzea eta prezioak. Dastatze bat ere egin zen eta Bidezko Merkataritzako produktuak merkaturatzeko hurbileko 2 esperientzia arrakastatsu aurkeztuko dira.

3.2.4.4. Perualdeko Bidezko Merkataritzaren Denda Solidarioa

Abenduaren 9tik urtarrilaren 4ra Getxoko Udalak Perualde GGKEari Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko denda bat laga zion. Dendak 1.000 bat lagun bisita jaso zuen eta 50 boluntario inguru izan ziren bertan arreta ematen. Dendan Peru eta Filipinetako eskulanak eskaini ziren eta baita Bidezko Merkataritzako elikagaiak



ere. Guztira, 6.000 euro batu zen, eta diru-kopuru hori Limako auzo marjinal bateko eskulangileentzat erabili zen osorik.

3.2.4.5. Getxo Bidezko Merkataritzaren kafearekin eta kakoarekin esnatzen da

Getxotik Mundura eta Mundurik Getxora zela-eta, proba pilotu bat egin zen Bidezko Merkataritzako kafea eta kakao sustatzeko ostalaritza-establezimenduetan nahiz herritarren artean, oro har.



Horretarako, Areetako Metroko Geltokiko plazaren alboko kaleak erreferentziatzen hartu ziren; han antolatu behar zen Getxotik Mundurako GGKEen Azoka. Ekimenean Romo eta Areetako 32 taberna eta jatetxek parte hartu zuten, eta abenduak zehar (6tik 8ra, biak barne) bezeroei Bidezko Merkataritzako kafea eta kakao eman zieten. Ekimena egiteko saltoki parte-hartzaileak identifikatu ziren, eta tabernetako bezeroei txartel bat eman zitzaizkien bertan adieraziz hartzen ari ziren kafea edo kakao Bidezko Merkataritzakoa

zela, eta ekimena Getxo Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria-aren ekintzen artean sartzen zela.

3.2.4.6. Erosketa Publiko Arduratsua

Garapenerako Lankidetz Arloak Getxoko Udalak Erosketa Publiko Arduratsua sustatzeko asmoa duen Lan Taldean parte hartzen du.

Taldea udaleko hainbat arlo osatzen dute, esate baterako: Berdintasuna, Kontratazioa, Getxolan, Getxo-Kirolak eta Lankidetz.

2013an egindako lanaren emaitza da REAS Euskadirekin (EAEko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) izenpetutako hitzarmena, ekonomia solidarioa bultzatu eta erosketa publiko arduratsua sustatze aldera.

Klausula sozialak Herri Administrazioak kontratatze orduan eskura dituen tresnak dira, ekintza positiboak egiteko hainbat alorretan, adibidez enpleguan, berdintasunean, gizarteratzean, ingurumenaren babesean... Kontratuen Legeak ezarritako baldintzen barnean.

Lankidetz hori hainbat fasetan egiten ari da: 2007-2012 aldian Udalean jasotako klausula sozialak aztertzea, klausula horien ezarpena sistematizatuko dituen instrukzioa egitea, teknikariak trebatzea eta emaitzak hedatzea.

Urtero helburu batzuk jarriko dira kontratazio publikoko pleguetan irizpideak jasotzeko bazterketa-arriskuan dauden pertsonen lan-munduratsua sustatzeko, Bidezko Merkataritza sustatzeko...

3.2.4.7. Talde Traktorea

Lehen aipatutako ekintzak garatzeko, haiek sustatzeko Talde Traktore bat dago Getxon, eta hainbat elkarte nahiz Kooperazio Arloak berak osatzen dute. 2013an bertan parte hartutako entitateak honako hauek izan dira: Perualde, Educación Sin Fronteras, Schams, Mujeres con Voz, Juventud Cruz Roja eta Fundación Social Emaus.

Talde heterogeneoa da lankidetz, gazteria, berdintasun eta immigrazioetik etorritako entitateak batzen baititu, eta horrek egiten diren proposamenak ahalik eta aberasgarrienak izatea dakar.

IV. HARRERA-PROIEKTUAK


Getxoko Udalaren harrera-proiektuak 1996an sortu ziren “Oporrak Bakean Programa”-rekin; haren bidez, haur sahararrek uztaile eta abuztuaren gure artean egoteko aukera dute.

Azken urteotan (2003. urtetik) haur sahararrek udan hartzeaz gain, familia getxoztarrek Europako Ekialdetik etorritako haurrak ere hartzen dituzte. Ekialdeko haurrak bi arrazoiengatik datoz bereziki: lehen arrazoa Chernobil-go tragedia jasan dutenak hartzea da (eta neurri handi batean oraindik jasaten ari direna), eta bigarrena, batez ere Errusiako umezurtegietatik datozen gazteak dira.

Biak ala biak Getxoko herritarren elkartasunaren adibide argiak dira, eta 2013an Getxon harrera zenbat dagoen errotuta erakutsi dute berriz ere.

Jarraian, 6. grafikoan 2007. urtetik Europako Ekialdetik nahiz Saharatik etorritakoen harrera-kopuruaren bilakaera adierazten da. Ikus daitekeenez, adingabe-kopuru handiena 2008an etorri zen; 45 izan ziren uda gure udalerrian igaro zutenak. Azken urteotako batez bestekoa 28 adingabeko baino zertxobait gehiago da urteko, eta azken bi urteotan harrera-familia gehiago izan dira.

6. grafikoa



4.1. Diru-laguntzen deialdia

2013ko deialdiaren bitartez, Ekialdeko haurrak hartzeko proiektuak finantzatu dira; nolanahi ere, diru-laguntzak Getxon erroldatutako familientzat izan dira.

Oraingoan, Europako Ekialdetik Getxora uda pasatzera datozen haur-kopurua asko jaitsi da. 2008an guztira 30 haur harreran hartu ziren Getxon; 2009an, 9, eta 2010. urtean egoera hori areagotu egin zen Udalean harreran hartzeko 3 eskaera baino ez zirelako aurkeztu; gauza bera gertatu zen 2011n ere. 2013an, Getxon harreran hartutako Europako Ekialdeko haurren kopurua igo egin zen: 18.

Proiektua	<i>Chernobil-go erradiazioak kaltetutako haur bielorrusiarrak harreran hartzea</i>		
Herrialdea	Ukraina	GGKE	Ukrania Gaztea
Laguntza	600,00 €	Guztira	9.000,00 €
Laburpena	Proiektu honek Ukrainatik etorritako 16 haur familietan hartzea du xede, Chernobil-go zentral nuklearrak eragindako erradiazioengatik kaltetuta geratu zirenak. Zehazki, adingabekoak Irpen eta Ivankiv ingurutik datoz, zentralaren hormatik 7 kilometrora dagoen herria. Getxoko udalerriko 2 familiak 2 adingabeko hartuko dituzte.		

Proiektua	<i>Haur errusiar eta bielorrusiarren aldi baterako harrera</i>		
Herrialdea	Errusia	GGKE	Bikarte
Laguntza	800,00 €	Guztira	142.950,00 €
Laburpena	Proiektu honetan Errusiatik etorritako 86 haur eta 2 arduradun familietan hartuko dira, honako eskualde hauetatik etorritakoak: <ul style="list-style-type: none"> • Murmansk • Mendebaldeko Siberia. • Volvograd • Briansk. • Krasnoyark, 2011n sartu zen beste leku bat. Getxoko udalerriko 2 familiak 2 adingabeko hartuko dituzte.		

Proiektua	<i>Chernobil-go hondamendiak kaltetutako inguruan bizi diren adingabekoak harreran hartzea</i>		
Herrialdea	Ukraina	GGKE	Chernobil elkarte
Laguntza	2.600,00 €	Guztira	269.900,00 €
Laburpena	Proiektu honek Ukrainatik etorritako 88 adingabeko, 55 neska eta 33 mutil, familietan hartzea du xede, Chernobil-go zentral nuklearrak eragindako erradiazioengatik kaltetuta geratu zirenak. Zehazki, adingabekoak Irpen eta Ivankiv ingurutik datoz, zentralaren hormatik 7 kilometrora dagoen herria. 10 adingabeko hartu dira Getxon.		

Proiektua	<i>Chernobilgo sindromea duten adingabekoak udan hartzea</i>		
Herrialdea	Ukraina	GGKE	Chernobileko umeak
Laguntza	2.600,00 €	Guztira	269.900,00 €
Laburpena	Proiektu honek Ukrainatik etorritako 88 adingabeko, 55 neska eta 33 mutil, familietan hartzea du xede, Chernobil-go zentral nuklearrak eragindako erradiazioengatik kaltetuta geratu zirenak. Zehazki, adingabekoak Irpen eta Ivankiv ingurutik datoz, zentralaren hormatik 7 kilometrora dagoen herria. 4 adingabeko hartuko dira Getxon		

4.2. Getxo Pro Sahara ATFALekin hitzarmena

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 1994. urtetik Getxoko Udala Bir Gaduz-eko daira-rekin senidetuta dagoela. Erabaki hori 1994ko ekainaren 24ko Udalbatzan hartu zen eta, hala, Getxok Sahararekin duen lehentasunezko harremana, senidetze horretan erabakita geratzen da.

1996. urtetik, Saharako haurren opor-programa bat egiten da Getxoko udalerriko familietan (1998an baino ez zen bertan behera geratu ustez erreferenduma egingo zela-eta). Nolanahi ere, eta proiektuaren jarraipena ikusita, 1999. urtera arte ez zen lankidetzaren hitzarmena formalizatu Getxo Pro-Sahara ATFAL elkartearen eta Getxoko Udalaren artean, eta elkarte hori arduratu zen programa hori kudeatu eta antolatzeaz.

Programa honek udalaren beste arlo eta erakunde batzuen laguntza du ere, eta haien artean Getxo Kirolakek emandakoa eskertu behar da; izan ere, haurrei laguntzaile batekin igerilekuetan "abonu bigunekin" sartzeko aukera ematen zaie. Ekimen hori Europako Ekialdetik etorritako haurrei ere aplikatzen zaie.

Azken urteotako datuak alderatuz, Getxora etorritako adingabekoen kopurua egonkor samarra izan da, eta datuak harreraren hartutako 16 eta 11 adingabeen artean fluktuatu dira.

2013ko harrerari dagokionez, jarraian datu interesgarrienak aurkezten dira, laburbilduta:

Proiektua	<i>Oporrak Bakean Programa</i>	
Herrialdea	Tindouf-eko (Aljeria) Errefuxiatu Sahararren Kanpamentuak	
GGKE	Getxo Pro Sahara ATFAL	
Diru-laguntza	15.000,00 €	Zenbatekoa, guztira 20.000,00 €
Laburpena	<p>Oporrak Bakean programa EAE guztian egiten da, eta era horretan Euskadira 452 bat haur heltzen dira.</p> <p>Programaren helburu zehatza honako hau da: Saharako haur-talde baten kultura zabaldu eta osasuna hobetzea, Saharako Herriaren egoeraren berri ematea eta kultur trukea egitea, haur horiek Getxoko familietan harreraren hartuz. Esperotako emaitzak honako hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Saharako haurrak uztail eta abuztuan hautatutako Getxoko familietan biziko dira. 2. Saharako haur-taldeak orain artean liburuetan bakarrik ezagutu dutena biziko dute (itsasoa, mendia, belarra, eraikinak, iturriak, teknologiak, itsasoan edo igerilekuan bainatzea); gaztelania nahiz euskarara hurbilduko dira eta hizkuntza horiek sakontzeko aukera izango dute. 3. Izan ditzaketen osasun-arazoak hautematea eta tratatzea. 4. Gure kulturaren eta sahararren arteko elkarrekintza egingo da. <p>2013an, familia getxoztarrek 6 neska eta 5 mutil hartu zituzten.</p>	



4.3. Egikaritze zuzena

Saharako eta Europako Ekialdeko haurren harrera dela bide, eta familia getxoztarrei udako bi hilabeteetan (uztaila eta abuztua) egindako ahalegina eskertzeko asmoz haiekin beren denbora eta oporrak partekatuz, haurrei eta familiei harrera egin zitzaizen Udalean.



2013an Getxoko Udalean egindako harrera

Topaketa 2013ko uztailaren 13an egin zen Udalaren Osoko Bilkuren Aretoan. Bertan izan ziren Alkatea (Imanol Landa), Lankidetzako Zinegotzi Arduraduna (Kepa Miñambres), eta baita toki-korporazioko beste kide batzuk ere. Harrera Saharatik nahiz Europako Ekialdetik etorritako haurrentzat egin zen eta, horrenbestez, kultur artekotasuna sustatuz.

Ekitaldiaren balorazioa oso positiboa izan zen, alde batetik, uda gure artean igarotzen duten haurrak gehiago hurbiltzea eta haien ezagutza handiagoa izatea lortu baitzen; bestetik, haiek hartzen dituzten familiei merezitako aitortza egin zitzaizen, lan solidario bikaina egiten dutelako.

V. GIZA EKINTZA


2013an, giza ekintzako bi esku-hartze egin dira.

5.1 Sahararen aldeko Euskal Karabana Solidarioa

Proiektua	Sahararen aldeko Euskal Karabana Solidarioa		
Herrialdea	Tindouf-eko (Aljeria) Errefuxiatu Sahararren Kanpamentuak		
GGKE	Getxo Pro Sahara ATFAL		
Data	2013ko maiatza	Diru-laguntza	15.000,00 €
Laburpena	<p>Karabanaren helburua Saharako errefuxiatuen elikagaien segurtasuna indartzea da, errefuxiatuen osasun nahiz ongizaterako funtsezkoa dena. Antzeko maila batean, eta barneko helburu gisa, Euskadiko biztanleek laguntza eman dezaten: karabana solidarioari elikagaiak eta osasun-produktuak emanez, haurrak eta nerabeak bereziki inplikatur, horretarako gure autonomia erkidegoko ikastetxe publiko eta pribatuetan elikagai-bilketa proposatuz. Karabatan esperotako emaitzak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasun-prebentzio sahararra indartu egin da nutrizio-arloan. • Saharako Ilargi Gorriaren ibilgailuen parke mugikorra osatuta geratuko da. <p>Getxoko Udalaren giza laguntzarekin garraio-gastuak finantzatzen dira elikagaiak eta higiene-produktuak Tindouf-eko errefuxiatuen kanpamentuetara hel daitezten.</p>		



5.2 Filipinetarako larrialdi-laguntza

Proiektua	Filipinetarako larrialdi-laguntza		
Herrialdea	Filipinak		
GGKE	Zabalketa		
Data	2013ko azaroa	Diru-laguntza	5.000,00 €
Laburpena		<p>Cebú eta Bohol-eko azpiegituretan kalte handiak eragin zituen lurrikararen ostean (Richter-eskalan 7.2 gradu), Yolanda izeneko tifoia Filipinetako hainbat gune suntsitu ditu eta aurrekaririk gabeko giza hondamendia sortu; 10.000 pertsona hil eta hainbat eta hainbat zauritu nahiz kaltetu eragin ditu, etxeak galdu eta bizirauteko beharreko guztia galdu dutenak. Kaltetutako familientzat premiazoena elikadurako oinarrizko beharrak betetzea zen. Esku-hartzeak 1.000 lagun ingururi laguntza emango die eta dirua oinarrizko elikagaiak eskuratzeko erabiliko da bereziki. Udalak emandako diru-laguntzaz gain, toki-mailan eragindako mobilizazioa azpimarratu behar da. Hala, Sikap immigrante filipinarren elkarteak, Getxo Enpresak eta San Martin de Tours Misio Taldeak era aktiboan parte hartu dute proiektuari laguntza emateko orduan.</p>	

VI. GETXOKO GGKE-AK SENDOTZEA

2013an eta ikusita garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duen Getxoko elkarte-sareak zer behar zituen, Udaleko Lankidetzaren Arloak diru-laguntzen deialdia antolatu zuen bosgarren aldiz udalerriko elkarte-sarea sendotzeko asmoz.

Helburua Getxoko GGKEen funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko gastuen zati bat finantzatzea da eta, hala, udalerriko elkarte-sarea sendotuko zen.

Diru-laguntzen lerro horretaz baliatu ahal izateko baldintzen artean udalerrian lanerako egoitza bat edukitzea da, eta getxoztarrek bertara sartzeko aukera izatea.

Diru-laguntzen deialdi honetarako 12.000 euro erabili da honako gastu hauek ordaintzen laguntzeko: pertsonala, gastu arruntak, publizitate eta propagandako gastuak, prestakuntza-gastuak eta erakundeen kudeaketa-kalitatea hobetzeko gastuak.

Guztira sei entitate aurkeztu ziren deialdira, eta banaketa ondorengoa izan zen:

GGKE / ONGD	Diru-laguntza
Zabalketa	2.987,00 €
Mugarik Gabeko Hezkuntza	1.745,34 €
Perualde	1.635,00 €
Getxo Pro Sahara ATFAL	2.148,11 €
Taldeka Lagunduz	1.458,87 €
San Martin de Tours	750,00 €
Entreamigos – Lagun Artean	1.275,45 €

VII. BESTE ZENBAIT EKINTZA

Lehen aipatutako proiektuez gain, Lankidetz Arloak zenbait ekintzari laguntza eman edo haietan esku hartu du zuzenean, edo lankidetzako politiken koordinazioko foroetan parte hartu da.

Egindako ekintzen artean, tokiko erakundeek egindako bisitak azpimarratu behar dira (Getxoko Udala kontraparte horiekin elkarlanean aritu da azken urteotan), bai eta Hegoaldeko beste entitate batzuk ere, Euskadin egindako egonaldia baliatuz Lankidetz Arloarekin biltzea egokitzen jo zutenak burutzen ari diren lana ezagutzera emateko.

7.1. Kontraparteak prestatzea

Azaroan “Pertsonak, Enpresa eta Garapenerako Lankidetz” izeneko lehen topaketa egin zen Getxoko Elkartegian. Zabalketak antolatu zuen NER Group-en laguntzarekin, eta bertan Bolivia, Kolonia eta Peruko Zabalketako tokiko kontraparteak erakundeetako 13 kidek parte hartu zuten². Kasu askotan zenbait deialdiren bidez Getxoko Udalaren funtsak jasotako kontraparteak dira. Topaketaren helburua antolaketa kudeatzeko gaitasunak sendotzea zen NER estiloaren arabera (Harremanetarako Estilo Berria) eta garapenerako lankidetz-proiektuak ebaluatzeko.



Bi aste bizi-bizi izan ziren eta tarte horretan Zabalketako taldeak emandako prestakuntza teorikoa Ner Group-eko enpresetan egindako saio praktikoekin konbinatu zen lantaldean benetako bilkuretara joanez eta bertatik bertara ezagutzeko nola funtzionatzen duen Harremanen Estilo Berrian oinarritutako erakunde batek; estilo hori pertsonengan oinarritzen da eta honako balio hauek lehenesten ditu: gardentasuna, konpromisoa, erabakiak elkarrekin hartzea eta

elkartasuna, besteak beste. Programaren barnean Udaleko Lankidetzako taldearekin ere lan-saio bat egiteko aukera izan zen udalerriko osoko bilkuren aretoan.

7.2. Egindako beste ekintza batzuk

Kronologikoki, honako hauek dira Lankidetz Arloak parte hartu edo zuzenean laguntza eman duen ekintza aipagarrienetako batzuk:

- Urtarrilean, Mugarik Gabeko Medikuen erakusketa.
- Otsailean, Saharako bandera jarri zen udaletxean.
- Otsailean, FEMPrekin elkarlanean aritu zen Lankidetz Deszentralizatuaren gaineko azterketan.
- Maiatzean, “VI. Sahararen aldeko Herri Krossa”.
- Maiatzean, Lankidetz eta senidetzeei buruzko topaketa, Zizurkilan.
- Irailean, Getxo Folk, espazio solidarioa.

² Boliviatik: AYNi zentroa, AYNi elkarte zibila; Ekialdeko eta Prozesuko Gaitasun Institutua, Hezkuntza Zerbitzuak. Koloniatik, Koloniako Mikroenpresak (MEDA). Azkenik, Perutik izan ziren: Cáritas Cusco, Cáritas Abancay eta Cáritas Juli.

- Abenduan, San Martin de Tours Misio taldeak antolatutako Azokatxo Solidarioarekin elkarlanean, Kansenia-ren alde.

VIII. GARAPENERAKO LANKIDETZAKO LAN-TALDEA

Getxoko Udalak Garapenerako Lankidetzako Lan Talde bat sortuta du 2004. urtetik aurrera, eta harekin aldi berean behin biltzen da.

Lan Taldea, kontsultarako organoa da eta Garapenerako Lankidetzari lotutako sektore sozialak sentsibilizatzea eta inplikatzea bilatzen da; horrekin batera, Herri Administrazioak hainbat mailatan arlo horretan egindako ekintzak koordinatzea, esate baterako, ekimen solidarioak edo herritarren ekimenak oro har.

Lan taldearen eginkizunak honako hauek dira:

- Udalerriko erakundeak ordezkatzea.
- Kooperazio Arloari aholkularitza ematea, alor horretan udalerriko esku-hartzearen behar nahiz lehentasunen gainean, bai eta alor horretan Administrazioak kontuan har ditzakeen beste alderdi batzuen gainean ere.
- Egokiak iruditzen zaizkien nahi adina txosten, iradokizun, azterketa eta proposamen egitea.
- Udalerrian sortutako ekimenen arteko koordinazio-bidea izatea Lankidetzako arloan.

2013an, Lan Taldea, ondoren zehazten diren erakundeek osatu dute, Garapenerako Lankidetzako Arloaz gain:

Getxo Pro Sahara ATFAL, Ayuda MAS, Biladi, Ecca Romo, Mugarik Gabeko Hezkuntza, Entreamigos - Lagun Artean, Medicus Mundi Bizkaia, Mugarik Gabe, Perualde, San Martín de Tours Misio Taldea, UNESCO Etxea, Taldeka Lagunduz eta Zabalketa; hortaz, Taldea 13 GGKEek osatzen dute.

Jorrotutako gaien artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- ✓ 2013ko Getxotik Mundura eta Mundutik Getxora elkarrekin ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak.
- ✓ 2013ko diru-laguntzen deialdia.
- ✓ Diru-laguntzen deialdia GGKEetako gastu arruntetako, eta lan egiteko egoitza Getxoko udalerrian badute.
- ✓ Getxorik Mundura Mundutik Getxora, XVI. edizioa, prestakuntza.

Guztira, 2013. urtean hiru bilkura egin dira:

Bilkura-data		Bertaratutako GGKEak	Jorrotutako gai-kopurua
13/03(19)		13	5
13/10/03		10	5
13/11/13		10	6
GUZTIRA	3 bilkura	33	16 gai jorrotuta
Batez bestekoa		11 (% 84,62)	5